

1. Kapituluua: Introdukzioa

Kultura eta ekonomiaz aritu baino lehen termino hauek definitu behar dira:

Gaur egun paradigma neoklasikoa da gainjartzen dena, baino bere imperialismo intelektuala hain handia izan ere, ez da ikuspegi bakarra. Joera bat dago gaur egungo gizartean ekonomia naturalizatzeko, identitate propio eta aparteko bat duen zerbait bezala ikusteko, gauza erabat sozial gisa ikusi ordez.

Kulturari dagokionez. Robert Borofskyk zion kultura definitzea haizea kaiolan sartzea baino zailagoa dela. Etimologikoki: Kulturak latinez lurraren lantzeari egiten zion erreferentzia, eta XVI-tik aurrera bere esanahi literala gogo eta intelektoalen lanketara trasladatu zen. Kulturaren zentzu figuratuak gaur egun arte iraun du, izan ere, ez da arraroa entzutea norbaitek kultura daukala, kulturizatua dagoela. XIX. mendetik aurrera, kultura gero eta zentzu zabalagoan erabili da, zibilizazioaren garapen intelektual eta espiritualari erreferentzia egiteko. Aldi berean, kultura partikular ezberdinen ideia sortu zen, nazio ezberdinei lotuak zeudenak. Denborarekin, kulturaren interpretazio humanistiko hau are gehiago zabaldu zen, eta kulturak esfortzu intelektualaz gain herrialde edo gizarte baten bizimodu osoa barnebiltzen zuela pentsatu zen.

Nola egin erabilgarri, operatibo, kulturaren kontzeptua? Kulturaren esananhi batzuk zurrunejak dira, eta ikergai izatea merezi duten fenomenoak kanpoan uzten dituzte. Beste batzuk ordea zabalegiak dira, adib kultura=soziala dan guztia, eta honek analitikoki hutsalak eta ez erabilgarriak bilakatzen dute. Hala ere, definizio aniztasun honetatik 2 definizio atera daitezke:

1. Kultura soziologia nahiz antropologian erabili ohi den bezala, talde baten jarrera, ohitura, sinesmen, balio eta ohiko praktikak. Talde hau definitzeko kriterio geografiko, politiko, lan mota jakin bat...etab. Zeinuak, sinboloak, testuak, hizkuntza, instrumentuak...dira taldea definitu dezaketen sinboloak. Talde baten kultur manifestazioak talde honi identitate bereizgarri bat emateko balio dezakete. Definizio hau erabilgarria kultura eta garapen ekonomikoaren arteko lotura ulertzeko, adib.
2. Kulturaren bigarren definizioa da: gizakiak egiten dituzten hainbat jarduera, eta jarduera hauen emaitzak/produktuak, gizakiaren alde moral, intelektual eta artistikoarekin lotura dutenak. Zentzu honetan, kulturak gogoaren ilustrazio eta hezkuntzari eragiten du (vs irakaspen erabat teknikoak). Ekintza bat kulturala izateko:

-ekintzek artistikoa den zerbait inplikitzen dutela haien produkzioan

-esanahi simbolikoaren hedapen eta sortzearekin lotuak

-produktuak errepresentatzen duena, behintzat potentzian, propietate intelektual mota bat

Horrela definituta, disziplina artistiko tradizionalki hala definituz izan direnez gain (literatura, dantza, musika..) festivalak, periodismoa, irratia eta telebista ere multzo honetan sartzen dira. Berrikuntza zientifikoa, ordea, ez, esanahia transmititzea baino utilitario izateko baitago bideratua. Kirolaren kasua ez hain argi, baino historikoki erritu edo ohitura bat izan dela, eta balio konpartituak eta talde identitatea espresatzen dituela ukazina da. Kriterio hauek agian balio dute kulturaren eta kultur jardueren definizio funtzional bat eskaintzeko, baino agian ez dira nahikoak

merkantzia mota batzuk kategoriatan ezberdin batean sartzeko, analisi ekonomiko bat egitera begira (19 or.). Eztabaida egon da ekonomisten artean ea badagoen merkantzia kulturalak era fundamentatu batean merkantzia ekonomiko ordinariorik bereizteko.

Ñabardura batzuk:

3 ñabardura egin behar dira:

-Nahiz kultura normalean era baikorrean erabiltze den, bada posible konotazioa txarrak edukitzea. Adib, kultura nazia, edo ustelkeriaren kultura, edo gang culture. Izan ere, balio elkarbanatu eta talde identitatearen adibide dira, eta beraz kulturaren manifestazio gisa hartu leizke. Honi aurre egiteko era bat da kulturak zertan datzan zehazteko kriterio etiko minimo batzuk jartzea (ez bada ex ez da kultura), era horretan kulturaren espresio batzuk kultura gisa deskalifikatuz, eta horrela ezin da aitzaki gisa erabili talde baten kultura tradizionalaren parte direla

-Ea kultura gauza bat ala prozesu bat den. Izan ere, kultura prozesu bezala ikusteak kulturaren esparruan gatazka dagoela azalartzea, bere baitan dauden botere harremanak seinalatzea. Horrela definitzearekin ez da kultura=objektu eta praktiken inbentario bat kontzeptua desagerrarazi nahi, baizk eta kultur prozesuak eta haren baitako botere harremanak ulertu ahal izatea. Adib: horrela posible egiten da kultura dominantei buruz itzeitea.

-Beste kontu bat da zer punturarte solapatzen diren kulturaren kontzeptua eta soziologoaren gizartearen kontzeptua. Nahiz kulturala eta soziala denaren arteko banaketa lausoa izan, bereizi egin daitezke. Kulturak gizakiaren funtzio artistiko eta intelektualak biltzen ditu (nahiz ez konszienteak izan adib hizk), eta gizartean ari garenean ordea antolakuntza sozial prozesuetaz ari gara, izan deliberatu edo espontaneoak hauek ere.

Ekonomia kulturarekiko independente al da? Zientzia ekonomikoaren testuinguru kulturala

Ekonomiaren testuinguru kulturala, ekonomia pentsamentu sistema gisa.

Ekonomia erabat zientifkoa eta neutroa dela uste dutenek esan dezakete ekonomiak disziplina gisa ez daukala testuinguru kulturalik. Throsbyk ordea, dio marxismoa eta bestelako pentsamendu eskola ekonomikoak kultura eta subkulturak dauzkatela eta beraz prozesu kultural gisa uler daitezkeela. Horretaz gain, dio kulturak askotan atrotzen ez den eragina daukala ekonomisten pentsatzeko eran. Hau, azken finean, ideologiak observadorearengan eragina duela esaten duen argudioaren zabalpen bat da. Adib, gaur egungo ekonomia neoklasikoren zabalpenak ea zerikusirik ez ote duen kapitalismoak sortzen duen predisposizio kultural edo presuasio intelektual prozesu batekin.

Ekonomiaren testuinguru kulturala, ekonomia antolakuntza sozial sistema gisa. Agente ekonomikoek testuinguru ekonomiko batean hartzen dituzte erabakiak, eta testuinguru honek eragina dauka hauen portaeraren erregulazioan.

Izan dira hainbat saiakera, gainera, kulturak historia ekonomikoan izandako eraginaz. Ospetsuena Max Weberren lana da, lan etika protestantea eta kapitalismoaren garapena lotu zituen.

Kultura ekonomia bezala: kulturaren testuinguru ekonomikoa

Bai kulturaren ulerkera antropologiko zabala eta bai kulturaren zentzu mugatuagoak ikuspegi ekonomiko batetik ikertu ahal. Kultura talde batek konpartitzen dituen sinesmen, balio, ohitura..giza definitu ezker, trukeak (bai material bai simbolikoak) ere talde horren ezaugarri gisa hartu ahal. Izan ere, elkartruke ekonomikoak signifikazio kultural bat har dezake. Horretaz gain, "materialismo kultural"aren ideia daukagu, hau da, kultura guztiak haren inguru ekonomikora egokitzen direla eta harengandik abiatuta azaldu daitezkeela.

Kulturaren ikuspegi funtzionalari dagokionez, esan dezakegu, alde batetik, bien kulturalen produkzioa eta kontsumoa marko industrial baten baitan koka ditzakegula, eta merkantzia kontsideratu daitezkeela, beste era bateko produktuekin batera. Industria kultural kontzeptua lehendabizi Frankfurtoko eskolako Theodor Adorno eta Max Horkheimerrek erabili.

Ekonomia kulturalaren baitan lan lerro ezberdinak daude: Batzuk zentratu en producción y consumo de cultura prozesu erabat ekonomiko gisa. Haren jatorria John Kenneth Galbraithen ekonomia eta artearen inguruan idatzitakoa. "La conversión de la cultura en mercancía, asumida en este enfoque, no elimina otras interpretaciones de la producción cultural, incluida la idea de que el arte solo se puede racionalizar desde el punto de vista autorreferencial (?). Por el contrario, este punto de vista económico de la cultura acepta sencillamente como un hecho descriptivo que las actividades de producir y consumir bienes y servicios culturales dentro de un sistema económico incluyen por lo general transacciones económicas, que de alguna manera se puede trazar un círculo alrededor de dichas actividades y que todo lo contenido en ese círculo se puede denominar industria y analizar en consecuencia" (27 or).

Individualismo y colectivismo

Pentsamentu ekonomikoaren bilakaera indibidualismoan oinarritzen da, eta kultura berriz, hmen emandako zentzuan, talde portaeraren manifestazio bat da. Impulso eko indibidualista da, eta impulso kultu kolektiboa. Portera ekonomikoak objektibo indibidualak erreflejatzen ditu, kontsumitzaile indibidualak haien utilitatea maximizatzen saiatzen dira, eta produktoreak haien irabaziak maximizatzen. Hala ere, posible da ekonomian akzio kolektiboa egotea; adib, defentsa nazionala, legea eta ordena, ezin direnak demanda indibidualaren bidez finantzatu, estatuaren edo kooperazio kolektiboaren bidez lortu behar dira. Baina azken finean, hau ere demanda indibidualari edo bertan inplikatur dauden agente ekonomikoen interes propioari egotzi ahal.

Portarea kulturala, ordea, kolektiboa da, kulturaren izaeratik eratortzen den. Kultura, talde baten sinesmen, aspirazio eta identifikazioaren espresio den heinean, kolektiboa da. Horrela, impulso kulturala talde esperientzia desio bat, edo produkzio eta kontsumo kolektibo nahi bat, ezin zaiena talde baten norbanakoei soilik egotzi. Produkzioaren aldetik, adib, zerbitzu eta ondasunen produkzioa era kolektiboan ematen da. Nahiz artelan asko bakarka sortu, "los artistas que trabajan solos lo hacen en general esperando que su obra se comuniquen con otros; de manera similar, es probable que los consumidores solitarios del arte estén realizando una conexión humana mas amplia.". Beraz, ondasun kulturalen produkzio eta kontsumoa ezin dira auzi indibidual gisa ikusi, baizik eta norbanakoak transzenditzen dituen borondate kolektibo baten espresio gisa.

Laburtuz: bulkada eko gizarte baten norbanakoen desio indibidualen espresio gisa ikusten da, eta bulkada kultu gizarte baten baitan dagoen edo dauden taldeen desira kolektiboaren batze (una reunion) bat. Kultura lehen definitu dugun bezala espresatua.

8. Kapituluua: Politika Kulturala

Introdukzioa

Agian kultur politika da ekonomia eta kulturaren arte harremana era zuzenenean ikus daitekeen esparrua. Gaur egun gailentzen diren politikaren inguruko ideologia ekonomikoak politika publikoak politika ekonomikoaren bide berbera jarraitu beharko lukeela aldarrikatu, eta hala izan da. Orain politika publiko asko zerbitzu eskaintza bezala aurkezten dira, errentagarritasuna eta efizientzia bezalako balioak azpimarratuz.

Charles Taylorrek proposatzen du ondasun “irreductiblemente social” batzuek existitzekoa aukera konkretua, hau da, ondasunak zeinak azken instantzian ez dioten inongo norbanakori irabazirik eskaintzen. Honek esan nahiko luke esku hartze kulturala kolektiboan oinarrituako emaitzetan pentsatuz egin beharko litzakeela.

Kultura eta estatua: politika kulturalen politika

Kultura, gizartea eta estatauren harremanaren inguruan aspalditik pentsatu eta teorizatu da. XIX. mendean izan zen kulturak bere esanahia zabala ahrtu zuenean, gizarte baen bizi eredua, biztanleriaren garapen intelektuala eta arteen lanketa barnebilduz. Horrela, norbanakoaren garapena eta testuinguruaren artean harreman bat zegoela pentsatu zen. Gizakia izaki ilustratu bilakatzeko, izaki fin eta gustu oneko bilakatzeko, hezkuntza beharko zuen, eta honek estatuak kulturaren izango zuen paperarengan pentsatzera eramanean izan zen gizartea.

Mill bezalako autoreak, beste alde batetik, estatuaren eta kulturaren loturaren ulerkera explizituki politikoa egin zuten: Izan ere, kultura (artean funtzio zibilizatorioaren ideien baitan), hiritarrak gizarte demokratiko batean parte hartzeko beharrezkoa zela ikusten zuten. Demokraziaren jstifikazioa kulturari esker bertan parte hartzeko gai zen norbanakoaren ideien baitan egin zen. Kulturak, beraz, estatu modernoaren funtzionamenduari rol legitimatzaile hartu zuen. Dena dela, politika kulturala, izen horrekin, IIMG eta gero bakarrik sortu zen. Izan ere, IIMG eta gero optimismoa zen nagusi maila internazionalan, eta kulturak gerrak utzitako mundu berri horretan eragin positiboa izan zezakela pentsatzen zen. Horren ikusgarri da maila internazionalan kulturaren inguruan eman zen garapen instituzioanala (kultur poli internazionala): 1945an sortu zen Nazio Batuen estatutuaren dimentsio kulturala kontuan hartzen da, eta kulturaren parte hartzea giza eskubide gisa oinarritu zen 1948an (aldarrikapen unib). UNESCOk (1946) (Org de las naciones unidas para la educación, la ciencia y la cultura) maila internazionalan kulturaren inguruko gaiak tratatzeko mekanismo formal bat eskeintzen duen. 70 eta 80 hamarkadetan egindako konferentzia batzuetan, kulturak nazioarentzako eta batez ere garapenerako zuen garrantzia azpimarratu zen, eta politika kultu ezartzeko gidalerro batzuk adostu ziren. Aldi berean gobernuak akordio konkretuak egin zituzten kulturarekin lotutako gai ezberdinekin, adib, Pacto Mundial por el Patrimonio (1972). 80. hamarkadare buakeran eta 90.aren hasieran, UNESCOk kulturaren hamarkada izena eman zitzaion ekimen bat patrosinatu zuen. Haren atzean zegoen ideia: garapen ekonomikoaren esnaahia zabaltzea eta gizapea garapeneraren helburu eta instrumentu bilakatzeko. Hamarkada 4 helbururen inguruan ardaztu zen:

1. Kultura garapeneraren erdian kokatzea
2. Identitate kulturalak goratzea
3. Bizitza kulturalan parte hartzea zabaltzea

4. Kooperazio internazional kulturala bultzatzea

Ideal hauen lortzea Nazio Batuen Kultura eta Garapenerako Komisio Mundialaren (WCCD) sendotu zen. WCCDren ondorioetako bat 1998an Estokolmon eman zen konferentzia bat izan zen, non deklarazio bat atera zuten bertan parte hartutako herrialde guztiek. Konferentziak estatuei 5 helburu politiko adoptatzea gomendatu zien:

1. Politika kulturala garapenaren estrategiaren zati garrantzitsu egia
2. Sorkuntza eta bizitza kulturean parte hartzea sustatzea
3. Ondare kulturala babestu eta sustatzea, eta industria kulturala sustatzeko politikak eta praktikak indartzea
4. Informazioaren gizartean eta rentzako aniztasun kultural eta linguistikoa sustatu
5. Giza baliabide eta baliabide finantzario gehiago jartzea garapen kulturalaren mesedetan

Helburu hauek kulturgintza garapen ekonomikoaren eta politika ekonomikoen tetsuinguruan kokatzen dute, baliabide ekonomikoen garrantzia azpimarratuz, eta industria kulturek ekonomiari egin dakioken ekarpenak seinatuz, batez ere komunikabideen garai berrian. Aldi berean, balio kulturalak eta ekonomikak ez direla berdinak, eta lehendabizikoak garrantzitsuak eta arlo ekonomikoarekiko osagarriak direla esaten da.

Politika kulturalaren sustapen internazionalaren arazo handienetako bat informazio, datu, falta da, ikerketa empiriko sendo bat egitea zailtzen dutenak. Hemen ere aurrerapausuak eman dira eta mekanismoak jarri dira horretarako mundu mailan, baina herrialdeak datu bilketa on bat egin ezean zaila da.

Pasa gaitez orain kultur poli sortu dan testuinguru internazionaletik nazionalera. Batez ere europako eta britainian handiaren lurralde izandako zelanda berri, australia eta kanadari buruz arituko gara. Izan ere. EEBBk gerra osteko urteetan kulturaren ez interbenitzeko postura hartu zuen. Garapen bidean dauden herrialdeek arazo bereziak izan dituzte.

IIMG ezkerreko hainbat periodo bereiz daitezke:

- 1950-69: Ongizate estatuarekin batera, kultura denon eskura egon behar zuen zerbait zela pentsatzen zen, eta horri harraiki produkzio eta parte hartze artistikoa babesteko mekanismoak jarri ziren martxan, baita sormena sustatzeko programa sozialak. Gainera, ondareak jasaten zituen arriskuen gaineko kontzientziak artea eta leku eta eraikin historikoak babesteko eta restauratzeko esfortzu politiko bat egon zen.
- 1970 hamarkadan, ordea, kulturaren ulerkera funtzionalago bat zabaldu zen, eta industria kulturalak dinamismo ekonomiko eta transformazio sozialerako gaitasuna zutela ikusi eta aitortu zen. Hamarkadak aurrera egin ahala, industria kulturalaren garrantzia ekonomikoa gero eta nabariagoa egin zen (lana sortzeko, garapen lokal eta regionalerako, masa turismoarekin lotua...).
- 90 hamarkadarako kultur politikaren diseinurako motibazio ekonomiko, kultur industriatik eratorriak, egonkortuak zeuden.

Hau gerra ostean eman ziren 3 aldaketa handirekin lotzen da:

1. Kultura estatuaren monokultura izatetik, hau da, estatua izatetik kulturaren hornidura eta hedapena ziurtatzen zuen mekanismo nagusia, postura "dibersifikatu eta integradora-ago" batera. Estudio kulturek hau horrela interpretatu ohi dute: Klase altuen "goi mailako kultura" kolokan jartzen da ,

kulturaren eraikuntzan pertsona normalen transakzioek gero eta garrantzia handiagoa hartu ahala. Termino politikoetan, zera ikus daiteke, exzelentzia artistikoaren definiziorako kriterio elitistek indarra galtzen dute kulturaren jende gehiagok parte harztearen ideaiaren aurrean, izan ere, goi mailako arteen kalitatearen aurrean plurikulturalismo eta aniztasun kulturalaren ideiak sendotzen joaten dira. Aldi berean kultura loka eta komunitarioari ere balio handiagoa ematen zaio.

2. Gerra ostean, sektore pribatuak gehio eta eragin handiagoa du kulturaren, eta estatuak, gero eta urriagoa. Izan ere, estatuaren gaitasuna politika kulturalaren bidez aldaketa kulturalak gidatzeko asko ahultzen da. Enpresek industria kulturalaren irabazi aukerei heldu ahala, estatuak kultur politikan egiten zuten inbertsioa txikitzen joan zen, merkatuen liberalizazioaren eta privatizazioaren aldeko mugimendu orokorraren baitan (89 eta 90 hamarkadetan mundu mailako emrkatuaren liberalizazioa eta batzuk desestatalizazioa esaten diotena eman zen herrialde demokratiko liberaletan). Ondorioz, aldaketa kulturalen eta arteen garapenean gero eta eragin urriagoa dauka sektore publikoak eta gero eta handiagoa pribatuak. Honekin batera, instituzio kultural mota berriak sortu dira, lehen esku publikotan egondakoa esku pribatuetara pasatzen dutena. Adib, en Paisas Bajos museoak privatizatu egin dira, eraikinak eta bildumak oraindik estatuaren eskuetan mantenduz baino haien gestioa enpresen esku utziz. “ El ambito de la politica cultural se convierte en un ejercicio mas flexible de reponsabilidad fiscal y normativa por parte del estado, al tiempo que mantiene su papel fundamental en la afirmacion y la proteccion del interes publico en la esfera cultural”.
3. Kultura politkoan eragina daukan hirugarren aldaketa XX mende buakeran nabarmen egin den globalizazioa da. Kapitalaren gero eta mugikortasun handiagoa, ekonomia nazionalen gero eta interdependenzia handiagoa, komunikabideen izugarritzko garapenak... eragin handia. Batzuk esan honek eraigin homogeneousatzailea daukala kulturaren, kultura komertzial estandarizatu bat ezartzen delako mundu mailan. Baina izan ere integrazio ekonomikoa ez du zertan berdintasun kulturala ekarri, eta glob ondorio kulturalak ez daude argi. Adib, europar batasuna ekonomikoki gero eta gehiago integratu ahala, identitate nazionalaren sinboloak gero eta gehiago markatzen ari direla dirudi. Izan bata edo bestea, globalizazioak kultur politikan eragim sakona izango duela nabaria da. Nestor Gacia Canclirik, adib, esaten du politika kulturalak jada ezin direla kontsideratu gobernu nazionalak aurrera eramaten duten zerbait baizik eta “predominio de las indutrias de comunicacion de masas sobre las formas locales tradicionales de produccion y circulacion de la cultura como prueba del debilitamiento de la capacidad del estado para imponer una politica cultural nacional”.

Hiru gertakari hauek kultur politikan jarduten duten botereen beralineazio bat eragin dute. Estatuak jarraitzen du borondate kolektiboaren ejekuitorako bitarteko eraginkorrena izaten, haren bizitza sozial eta ekonomikoarako erregulazio eta zergen bilketari esker. Baina ukazina da gaur egun botere ekonomikoa merkatuaren inguruan konzentratzen dela. Horregatik, politika kultural ilustratu bat, gaur egun, sektore publiko eta pribatuaren elkarekintzaz

lortuko da. Estatuak interes kolektiboa babestu beharko du, sektore pribatuari era eraikitzaile batean parte hartzeko lekua eginez.